

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 255. alea - 2020ko urria



**-EUSKERAZ-
BAGERA!**

**Zuhatza sendotu nahian
erronka berriei heltzeko**



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



50 URTE
**BURU - ZURI
Taberna**

- Orartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

**AUKERA
INMOBILIARIA**

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 



urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo Apartado 3
20820 DEBA


Nº 379

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitadeen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak



Seven Clovers
Irish pub

943 191 295

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

AURKIBIDEA

6

ELKARRIZKETA

Imanol Botxo
elkarrizketatu dugu
Debarrak Munduan
atalean



10

ERREPORTAJEA

Bazkide kanpaina
jarri du abian
Zuhatza Euskara
Elkartek



12

ELKARRIZKETA

Itziarko Toki Entitate
Txikiari buruzko gradu
amaierako lana egin du
Maria Aizpuruak



14

ALBISTEA

Sinadura-bilketa
abiatu du guraso talde
batek ikastetxei
hainbat eskaera egiteko



16

B. GAZTEA

Hamabost ikaslek
parte hartuko dute
aurten Mendatako
Prensa Tailerrean



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatza
euskara elkarteak Deba

LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALA



Hezkuntza, Hezkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Saiburordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarteak. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Ander Salegi eta erredakzio taldea

Publizitatea: Joseba Escudero, Terese Larrañaga eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria


Lege gordailua: SS-246-2009

Inprimategia: Euskalinpri

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Izan bidea



Beste behin ere, preso eta iheslariak bizi duten egoerari irtenbidea eman behar zaiola adierazteko prest agertu gara Euskal Herriko txoko guztietako herritarrak, “650 Tontor” ekimenean parte hartzeko asmoz. Deba eta Itziarko hainbat pertsonak ere prest genituen oinetakoak urriaren 3an Andutzera igotzeko, baina eguraldi arazoak medio ekimena datorren urteko maiatzaren 8ra atzeratu beharra izan dugu.

Hala ere, eguraldiak ez gaitu geldiarazi eta norabide honetan urratsak ematen jarraitzeko asmoa dugu, bidea egiten jarraitzekoa. Eta horretarako, aurrera begira jartzen gara. Aurrera begira, aurrera egin nahi dugulako. Beraz, goiko argazkian ikus daitekeen bezala, urriaren 24ko manifestaziorako deialdia egin dugu; hilabete honen amaieran Donostian

elkartuko baikara, milaka herritar bilduko dituen manifestazio eta mosaiko erraldoian.

Bertan, mundu osoari zuzenduko gaitzaizkio, mundu osoak jakin dezan oraindik hemen ehunka preso etxetik ehunka kilometrora daudela, oraindik ere preso gehien-go lehena graduatzen edo zigor graduatzen dagoela, oraindik ere emakume presoek bakartuak jarraitzen dutela, ehun *motxildun* haur inguru daudela eta preso gaixoak heriotzera arte espetxean mantentzen dituztela... Azken finean, oraindik ere, hau dena ahalbidetzen duen salbuespeneko espetxe-politika indarrean dela.

Horregatik, “Resolution! Etxean!” lelopean honakoa aldarrikatuko dugu: unea dela, gehiengoak aldaketa nahi dugula, egoera hau ezin dela betikotu, eta elkarbizitzaren baitan aurrera egin ahal izateko ezinbesteko dela salbuespeneko espetxe-politika bertan behera utzi eta preso etxeratze-prozesua abian jartzea.

Bidea ibiliz egiten dela badakigu, eta gu urratsak emateko prest gaude; tontorra zein den badakigu: etxeratzea, elkarbizitza, bakea.

Segi dezagun, beraz, bidea egiten, bidea izan gaitzen. Lortuko dugu!

Sare Deba

Eskerrik asko Udalari

Eskerrak eman nahi dizkizuegu eskaini diguzuen gelagatik. Aurreko ikasturtea galdu genuen gelarik gabe

utzi gintuztelako, baina datorrena ondo aprobetxatzeko asmoa daukagu.

Eskerrik asko, Aritz, gurekin izan

duzun arretagatik eta gure arazoari irtenbidea eskaintzeagatik.

Sendabelarrak Taldea

AZKEN KAMISETAK SALGAI

Zuhatza euskara
elkartea

EZ ZAITEZ GABE GERATU!

Astelehenetik ostiralera: 9:30-12:30
Astearteetan: 16:30-19:30

Zuhatza Euskara Elkarteko lokalean
Iifar Kalea 12, behea
943 19 13 83

Gure herriko jostunei

Garai batean, gure herriko zenbait emakume jostunak ziren lanbidez. Haiek janzten gintuzten; artean ez baitzen *pret a porter* (janzteko prest) agertu, bakoitzak bere herrian egiten zuen arropa. Gaur egun, lanbidez jostuna den inor gutxi daukagu; baina, ez zaio josteari laga eta, aurren, pandemia dela eta, hariari heldu diote berriro, gure aurpegiak musukoz janzteko.

Esaera japoniar batek dioenez, denoi sortzen zaigu behatz txikitik hari gorri bat, bihotzeraino doana. Gure bizitzaren hari gorria, gizon eta emakume guztiona, sentimenduen arteko elkartasuna eta batasuna adierazten duena.

Ipuin horrek dioenez, bazen behin gizon aberats bat bere hari gorria nondik ote zetorren jakin nahi izan zuena; hark

ez zuen harremanik aberatsa ez zen inorekin; bazter uzten zituen jaiotzez kolore diferenteko edo behartsu zirenak oro. Halako batean, ohartu zen haria, hasierahasieran, jende arruntari lotua zegoela; bere arbasoak ere behartsu eta immigrante izanak zirela noizbait. Alegia, bazter lagata zeuzkan haietakoa zela eta, beraz, etorkizuna ere haiei lotua izanen zuela.

Arbaso izan ditugunengandik dator kigun hariak baserrietara eta Euskal Herri, Galizia, Extremadura, Andaluzia, Katalunia, Europa, Afrika, Amerika eta Ozeaniako beste herri batzuetara garamatza. Hari honentzat ez da hurbil edo urrutirik; ibilian jartzen gaitu harremanean, hurbileko eta urrutiko immigrazioetan; hala uste dugu behintzat inoiz immigrante izanak garenok. Arbasoen hari

gorriari ibilbidea zabaltzen goaz bakoitzak, eta bizi garen ingurunearenari ere bai, bere jauzi, bidegurutze, ezagun eta arrotzez osatzen baitoa. Debarron musukoak Ukrainaraino heldu dira, Txernobil Elkartearen bidez, eta horien modeloak darabiltzate Guatemala eta Chiapasko komunitate indigena eta nekazariak ere.

Hari gorriak esanahi bat baino gehiago ditu japoniarrentzat; adibidez, ehotzea, ehotze lana. Guri dagokigunez, horixe da jostunek egin dutena: elkartasun oihala eho. Horiekin batera, noski, hor ari dira osasungintzakoak, udal langileak, Gurutze Gorriko boluntarioak, Caritas eta beste zenbait herri talde eta pertsona, pandemia hau eramangarriago gerta dakigun lanean.

Jose Luis Albizu eta Lukax Dorronsoro



“Deva, ayer” aldizkaria, 1977



Gazteen alde

Uda honetan oso gaizki eraman dut gaztediaren kontrako iritzi tolesgabea. Arduragabeak, insolidarioak, ez dakit zenbat gauza gehiago entzun ditugun gazteen kontra. COVID-19aren testuinguruan praktika desegokiak eta arriskuak izan dituzten gazteak egongo dira seguru, baina ez dut uste zilegia denik gazteen kolektiboari egiten zaion kritika orokorra pertsona batzuen aldetik.

Kezkatzen nau epaile lana hain publiko bihurtu den garaiak. Zenbat juzgu ez ote ditugun entzun uda honetan... Badakigu beldurra tresna oso boteretsua dela gizartea norabidezteko garaiak; XX. mendea adibidez beteta daukagu. Kezkatu nauena da pertsona askoren juzguen errepika akritikoak.

Epaitzen duenak kanpoan ikusten ditu gaitz guztiak eta normalean ez du beregan

orbanik ikusi nahi. Barruan, ordea, auto-juzguz betetako motor bat dauka martxan, nahiz eta ez izan kontziente, eta eredugarritasunera lotuta bizi da itxura batean. Gazteak epaituz koherente, arduratsu eta hiperkonprometitu den belaunaldi bat ageri zaigu.

Gazteak bere haragitan bizi du ziurgabetasuna. COVID garaiak mundu globalizatuak dituen erronken tamaina hartzen laguntzen digu; COVIDaz haratago doazenak, bistan da. Ez dut uste, horregatik, interesgarria denik belaunaldi nagusien harrokeria. Elkarrizketa da interesgarria belaunaldien artean; esperientziak, intuizioak eta energiak harremanetan jartzea. Hiperkritikotasuna erantzukizun falta baino ez da; norbere buruarekin eta datorren munduarekin dugun sakoneko erantzukizun falta.



**NEKANE
GOIKOETXEA**

iritzia



Debarrak munduan

IMANOL BOTXO

New Yorkera lagun bati bisita egitera joan eta han geratzea erabaki zuen Imanol Botxo Manzisidorrek duela hamaika urte. Manhattan auzoan bizi da eta New York estatuko Osasun Sailean dihardu lanean. Gustuko du bertako bizimodua, baita bizikletan ibiltzea, igeri egitea edota museo eta kontzertuetara joatea ere. Egunen batean 'gustura' itzuliko omen da Debara, 'hiriko joan-etorriarekin nazkatzen naizenean, deskantsu bila'; oraindik ez, ordea.

Non zaude gaur egun? Zergatik?

Gaur egun New York hirian bizi naiz, Manhattan auzoan. Hiri hau izugarri gustatzen zait eta horregatik bizi naiz hemen.

Zerk eraman zintuen horra?

Orain dela hamaika urte nire lagun minetako bat hemen bizi zen, eta hura bisitatzeraz erortzea erabaki nuen. Hiru hilabeterako etorri nintzen, baina hainbeste gustatu zitzaidan hemengo bizimodua, bertan geratzea erabaki bainuen.

Zertan zabilta orain?

Momentu hauetan, New York estatuko Osasun Sailean egiten dut lan, gizarte zerbitzuak eskaintzen dizkiegu buruko gaixotasun larriak dituztenei. Euren beharizanak, ahal dugun moduan, betetzen saiatzen gara.

Espero zenuen bezalakoa da New York? Zerk harritu zintuen?

Nire asmoa ez zen inoiz izan New Yorken bizitzea. Hala ere, beste jende askok bezala, beti izan nuen hiri hau bisitatzeko gogoia.

Hona iritsi eta gehien gustatu zitzaidana jendea izan zen, kultura, arraza eta erlijio aniztetasuna jendea ezagutzea. Munduko hiririk aniztetasun gehiena duena; hiriko bost auzotan bakarrik 800 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira, horietatik asko Queens auzoan. New Yorken zehar ibiltzea abentura hutsa da, sorpresaz beteak. Etxetik atera eta inoiz ez dakizu eguna nola bukatuko den.

Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

NYen AEBetako Euskal Etxerik zaharrena dugu, 107 urtekoa. Orain dela urte batzuk, euskara irakasteko aukera eman zidaten, eta hala egin nuen. Bi urtez Euskal Etxeko euskara irakasle izan nintzen, eta ikasleen artean, bost amerikar, Finlandiako emakume bat eta madrildar bat izan nituen. Oso esperientzia aberasgarria

Laburrean

Paisaia bat:

Bizikletan, Williamsburg zubitik Manhattanerako bidea. Ia arnasa eteten duten bistak dira

Usain bat:

East River-Manhattan eta Brooklyn auzoak banatzen dituen ibaiarena; Deba ibaiaren usain berbera dauka

Zapore edo jaki bat:

Queens auzoko Roosevelt etorbidean saltzen dituzten takoak

Gustuko dut...

Udara

Ez dut gustuko...

Negua

Amets bat: Kale gorrian bizi diren guztiei etxebizitza duin bat lortzea



izan zen. Gaur egun, lan kontuak direla eta, ez dut astirik eta euskara irakasteari utzi egin behar izan diot. Hala ere, badituzt pare bat lagun Euskal Herrikoak eta lantzean behin elkartzen gara ekitaldiaren bat antolatzeko, edota zerbait hartzeko.

Bertako hizkuntzarik ba al dago hor? Hizkuntza txikirik edo?

NY hirian 800 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira, horien artean euskara, baita hindi, gujarati, hebreera edota urdu hizkuntzak ere.

Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?

Debatik, ahal banu, hondartza ekarriko nuke. Hemen bat baino gehiago ditugun arren, hondartzak, orokorrean, eta batez ere ura, ez dira hain ederrak.

Hemendik, berriz, janaria eramango nuke. Munduko bazter guztietako jatetxeak dauzkagu, sukaldean jarduteko ere edozein osagai aurki daiteke auzo ezberdinetako dendatxoetan. Jatun ona denarentzat edota jakin-mina duenarentzat ez dago hau bezalako hiririk munduan.

Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Bai. Egunen batean, hiriko joan-etorriarekin nazkatzen naizenean gustura itzuliko naiz Debara deskantsu bila.



“Bidasoan gora” liburua aurkeztu du Eneko Aizpuruak, Tene Mujika beka tarteko



Bidasoa ibaian gora oinez egindako bidaia baten kontakizuna egin du Eneko Aizpuruak idazleak aurkeztu berri duen liburuan. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako Tene Mujika bekaren fruitua da liburua; iaz jaso zuen beka Aizpuruak, eta urtebete izan du lana osatu eta liburua aurkezteko.

Memoria kolektiboko ariketa bat eginez, Bidasoa ibaiaren inguruan gertatutako hainbat istorio jaso ditu liburuan. Egilearen esanetan, Txingudiko badiako paduretatik abiatu eta Xorroxingo iturbururaino egindako bidearen edo bidaiaren kontakizuna da finean, “bidean galdutakoen, arrotz etorri eta arrotz joan zirenen arrastoan egindako ibilbide baten kontakizuna”.

“Bidasoan gora” ez da, baina, bidaia-kronika bat, kazetaritza lan bat ere ez. Errealitateaz mintzo da idazlea, baina errealitatea baino harago doa. “Kazetaritza lan batek baino tonu jasoagoa du. Ahalegin kontziente bat bada-go literaturarekin, moldeak puskatu nahi nituen; literatura egin. Baina fikziozko pertsonaiarik ez dago. Saiakera da”, argitu zuen Aizpuruak.

Aurrez Bidasoa inguruan izandako gertaeren dokumentazio-lana egin zuen idazleak, “baina bidaia libre utzi nahi nuen, bideak erakuts ziezadala nondik nora noan. Liburu hau ez litza-teke posible izango bidean aurkitu ditudan testigantzarik gabe; balio berezia dute”, gaineratu zuen.

Bere iritiz, Bidasoa “mugaren kontraesan guztiak biltzen dituen lekua eta ezlekua da”, historian zehar hamaika gertaeraren lekuko izandakoa. Eta gertaera horietako batzuk gogoratu ditu liburuan: aspaldiko kontrabando-istorioak eta migratzaileen trafikoarenak, Barojaren eta Aitzolen estualdiak gerra zibilean, naziengandik ihesi ibilitako juduen eta aire-pilotuen gorabeherak, Mikel Zabalzaren eta Eduardo Lopezen fin gaiztoa Endarlatsan, mugalariak, baserritarrak, eruditua, filantropoak, faxistak...



ITSASO ICIAR

Moldaketak

Hamaika froga egin ostean, zientzialariek diote umeek ezin dutela COVID-19a kutsatu, ez gurasoei behintzat. Amak, albisteak ikusten dituenean, barre egiten du, aurpegian sinesgogortasuna islatuz.

Ez dakigu errealitateak nondik joko gaituen bihar, ezta gaur gauean ere. Argi dago COVID-19ak hartu dituela gure pantailak eta beste edozein albistek indarra galdu duela horren ondoan. Zein da gure kritika? Nork daki zerbait COVID-19tik at azken sei hilabeteotan? Albistek ez dakite eta, ondorioz, guk ere ez dakigu edozein egoerari merezi duen adinako garrantzia eta indarra ematen. Hortik datorkigu beldurra, ezinegona, haserre eta, zergatik ez, lotsa. Lotsa, ezin dugulako jakin norainoko indarra edo oihartzuna izango duen kalean “normalki” jokatzek, normaltasun “berri” honetara ohitzeak; ez dakigulako egoera zail eta berri honi dagokion garrantzia ematen, ez gehiago, ez gutxiago.

Besteen bizitzak errazten pasatzen dugu gure bizitza, badagoelako beste norbait geurea errazten saiatzen dena; zer egin eta zer ez egin, zer erosi eta zer ez, zer den merkea, zer garestia... eta edozein egoerataro moldatzen dugu gure burua. Noizbait inork pentsatu al du zeinen kaltegarria izan daitekeen edozein pertsona edozein egoerataro moldatzeko duen erraztasuna normalizatzea? Hori bertute gisa kalifikatzea? Eta hala egiten ez duena, inongo eskrupulorik gabe, iraintzea eta zigortzea?

Hau ez da kritika, ondorioa baizik.

**ERRI GORAKO
PRODUKTUAK**

Zuhatz euskara
deba elkarteko
BAZKIDEEN ESKURA

**ESKAERAK:
URRIAREN 24tik
AZAROAREN 12ra**

*Zuhatz Euskara Elkarteko bazkideek
eskaerak egiteko informazio guztia jasoko dute ohiko bideetatik

INFORMAZIO GEHIAGORAKO: zuhatz2@gmail.com | 943 19 13 83

BADATOR EUSKARALDIA

Behin *Ariguneak* osatuta, norbanakoen txanda da orain

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra ospatuko da aurtengo Euskaraldia. Entitateetan langileek euskaraz lasai egin ahal izan dezaten *Ariguneak* proposatzen aritu da orain arte Herri Batzordea eta, lan horiekin amaituta, irailaren 24tik aurrera, norbanakoen izen-emateari ekin dio.

Urte hasieratik orain arte *Ariguneak* proposatzen aritu da Herri Batzordea herriko hainbat entitateetan. *Arigune* deitu diegu Euskaraldian parte hartu nahi duten *Ahobizi* eta *Belarriprestek*, hartutako konpromisoa praktikan jartzeko, izango dituzten eremu babestuei. Hasieratik jakingo dute toki horietan posible dela, inolako oztoporik gabe, taldean, euskaraz egitea.

Ariguneetan arituko diren pertsona horiek izena eman beharko dute orain, www.euskaraldia.eus web-orriaren bitartez, *Ahobizi* edo *Belarriprest* modura. Gogoratzen zer den *ahobizi* izatea? Eta *belarriprest* izatea?



AHOBIZI naiz

Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut uneoro, baina haiek erdaraz egiten badidate ere.



Batzuetan zaila egiten zait baina horretan saiatzen naiz. Aurrekoek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean, berriz, lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, halaxe jarraitzen dut.

Aztertu zure harreman sarea. Azaroaren 20tik abenduaren 4ra jarrera horri eutsiko diozula uste baduzu, ez izan dudarik, hartu *AHOBIZI*aren rola. Bi aldeek ulertzen baduzue, posible izango duzu euskaraz jardutea, *ahobizi* eta *belarriprest* ugari izango baitituzu inguruan.

BELARRIPREST naiz

Nire gaitasun eta aukeren arabera erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek niri uneoro euskaraz hitz egitea nahi dut; eta horixe eskatzen diet modu esplizituan.



Aztertu zure harreman sarea. Azaroaren 20tik abenduaren 4ra jarrera horri eutsiko diozula uste baduzu, ez izan dudarik, hartu *BELARRIPREST*aren rola. Horrela, orain arte euskaraz izan dituzun elkarriketek euskarazkoak izaten jarraituko dute, baina orain arte erdaraz izandako elkarriketa batzuk euskaraz edo bietan izateko bideak zabalduko dituzu.

Jarrera aktiboa izango duzu, gonbitea egingo diezulako eskal hitzunei zurekin euskaraz hitz egin dezaten. Oso garrantzitsua da zure funtzioa, euskarazko elkarriketak sortzen lagundu eta euskara erabiltzeko giro babestua sortuko duzulako.

Gogoratu, ordea, *Ariguneetan* aritu gabe ere, guztiok eman dezakegula izena Euskaraldian norbanako moduan, orain dela bi urte bezalaxe. Aipatutako webgune honetan egin behar da: www.euskaraldia.eus. Animatu eta parte hartu!

Euskaraldiaren barruan, bestalde, materiala jarriko dugu salgai nahi duenak eros dezan. Bereziki egingo diegu eskaintza elkarte gastronomiko, taberna eta dendariei, baina norbanakoek ere aukera izango dute hala egiteko. Sukaldeko mantalak eta etxe-sarreretako alfonbrak salduko ditugu. Hor dituzue, azpi aldean, argazkiak; nolakoak diren ikus dezazuen. Norbaitek nahi baditu, 647 52 94 00 telefonora deitu edo idatz dezake edota debakoeuskaraldia@gmail.com helbidean mezua utzi. Geu jarriko gara harremanetan zuekin. Eta inork Herri Batzordera gerturatu nahi badu ere goiko bide horiek berak erabil ditzake gurekin harremanetan jartzeko.

Debako Euskaraldiko Herri Batzordea

Jantzi **EUSKARALDIA**



AMANTALAK
Salmenta prezioa: 10€



LANPASA
Salmenta prezioa: 15€

Laburbira euskarazko film laburren zirkuituaren emanaldia urriaren 29an

Urriaren 29an, osteguna, iritsiko da Debara Laburbira euskarazko film laburren zirkuitua, Zuhatza Euskara Elkarteak antolatuta. Egun bizi dugun egoerak hala behartuta, udaberriaren bertan behera utzi behar izan zen egitasmoa, baina udazkeneko kultur agendan leku egin dio azkenean elkarteak. Emanaldia Kultur Elkartearen egingo da, 18:30ean, edukiera mugatuarekin eta segurtasun neurriak errespetatuz (ikusleak maskarekin egongo dira, eserita eta distantziak errespetatuz).

Euskaltzaleen Topagunearen Laburbira zirkuitua XVII. ediziora heldu da. Guztira 27 ikus-entzunezko lan aurkeztu badira ere, bederatzi film labur izango dira aurtengo deialdiko protagonistak, guztiak 2018tik 2020ra bitartean egindakoak. Horietako batzuk 2019ko hainbat jaialditan aurkeztutakoak dira

eta ikusleen artean arrakasta handia izan zutenak, hala nola *Anti*, *Pil Pil* eta *Harria Herria* film laburrak.

Iaz bezalaxe, emakume zuzendariak presentzia nabaria izango dute aurten; izan ere, zirkuitu ibiltaria osatzen duten bederatzi filmetatik sei emakumeek zuzendutakoak dira. Zuzendari horietako bat –Amaia San Sebastian–, gainera, Deban izango da, emanaldiaren osteko solasaldian parte hartzen.

Ordubete inguruko proiektzioa izango da. Hauek dira ikusgai izango diren laburmetriak: *Gau beltza* (Euskaltzaleen Topagunea), *Urak dakarrena* (Marilyn Taldea), *Anti* (Josu Martinez), *Tigre bat* (Amaia San Sebastian), *Pil Pil* (Kristina Zorita), *Mamarro* (Ibon Iza), *Kateak* (Yolanda Mazkieran), *Jauzi bat eta prixt* (Maitane Eyheramonho) eta *Harria Herria* (Dimegaz Kultur Elkarte).

Mintzalaguna programan izena emateko epea zabalik dago Deban



Mintzalagunen ikasturte amaierako afaria (2019).

Ikasturte berria hastearekin batera, martxan da Mintzalaguna egitasmoa Deban, "Mintzalaguna elkarrekin! Euskara bizi, erabili!" lemapean. Zuhatza Euskara Elkarteak kudeatzen du programa, Euskaltzaleen Topagunearekin elkarlanean, eta urriaren zabaldu du izenematea. Dena den, ikasturtean zehar ere egongo da egitasmoarekin bat egiteko aukera (aurrez osatutako taldeetan sartuko dira herritarrek).


Mintzalaguna euskaraz hitz egin ohi duten pertsonak euskaraz egin nahi duten pertsonekin elkartzen dituen programa da. Funtzionamenduari dagokionez, parte hartzaileen artean talde txikiak egiten dira eta astean behin ordu

betez beraien aisialdi garaian elkartzen dira paseoan, kafetegian, parkean... euskaraz aritzeko, euskaraz bizitzeko. Doakoa da programa eta bi modutara har daiteke parte, euskara praktikatzu (bidelaria) eta euskara praktikatzen lagunduz (bidelaguna). Euskaraz komunikatzeko gai izatea eta astean ordubetez elkartzeko prest egotea dira mintzalagun izateko baldintza bakarrak.

Guztira, 21 herri eta eskualdek hartu dute parte aurtengo kanpainan, baina Mintzapraktika egitasmoetan parte hartzeko deia Euskal Herri osora hedatu nahi du deialdiak; mintzalagunen komunitatea 7.000 lagunek baino gehiagok osatzen dute gaur egun eta kopurua handitzen jarraitu nahi dute egitasmoko arduradunek.

Nola eman daiteke izena?

Zuhatza Euskara Elkartearen bulegoan bertan (Ifar kalea 12, behean), 943 19 13 83 telefono zenbakira deituta, koordinatzailea@zuhatza.com-era idatzita edo labur.eus/Zuhatza_Deba helbidean sartuta eman daiteke izena.



MATTIN URBIETA

Iragazi eta garbitu

Gaur ere etxera sartzean eskuak garbitzea izan da lehen gauza. Aspaldian irakurritako istorio batez oroitu naiz, baina ez bertako protagonistaz. 2020an gaudela probestuz, gutxi kosta zait Interneten bere izena aurkitzea: Ignaz Semmelweis.

XIX. mendeko mediku hungariar bat zen Ignaz. Erditze- edo obstetrikia-klinika batean egiten zuen lan eta, konaturatu zenez, erditzearen zeuden emakumei lagundu aurretik eskuak garbitzeak nabarmen murrizten zuen erditu ostean infekzio puerperalaren ondorioz emakumea hiltzeko arriskua. Praktikak ez zuen onarpenik izan, Ignaz hil eta denbora batera Louis Pasteur kimikariak gaitz askoren jatorria mikroorganismoak direla frogatu arte. Pixkanaka bada ere, asko ikasi dugu ordutik hona.

Gaur-gaurkoz barruraino dugu sartuta eskuak garbitzeak duen garrantzia, nabarmenago akaso koronabirusa dela eta. Garaiotan beste zenbait gauza ere agerikoago egin dira. Uste baino hedatuago baitago (des)informazioa (behar beste) kontrastatu gabe edota ezagutzarik gabe zabaltzearen izurria. Behar baino gehiagotan irensten eta zabaltzen ditugu iristen zaizkigun artikulak, manifestu eta abarrak jatorrizko datu eta iturriak aztertu gabe.

Egia da. Ez da beti samurra (des)informazioaren itsaso lohitu eta zaborreztatuan olatu gardena harrapatzea. Zilegi da zalantzak izatea, galderi erantzuna aurkitu nahi izatea. Hortik, gure beldurrei segika zaborte-gira buruz jauzi egin eta iragazi gabe irenstera, alde ederra dago. Sikiera eskuak garbituko bagenitu zabor artean ibili ondoren...



BAZKIDE KANPAINA JARRI DU ABIAN ZUHATZA EUSKARA ELKARTEAK

2009an azken kanpaina egin zenetik hamaika urte igaro direlarik, bazkide kanpaina berria abiatu du Zuhatza Euskara Elkarteak aurtengo udazkenean, "Euskeraz bagera" lemapean. Izan ere, etorkizunerako erronka ugari ditu Zuhatzak, baina horiei behar bezala heldu ahal izateko herritarrek ematen dioten babesa handitu beharra duela ikusi du; ez babes ekonomikoa bakarrik, ordea, bazkideak baitira Zuhatzaren helburu nagusiari, geurean euskara eta euskal kultura sustatzeko egitekoari, benetako bultzada eta zabalkunde ematen diotenak.

Zuhatza Euskara Elkartea 1997an sortu zen euskararen erabilera bultzatu eta herria euskaldunago egiteko helburuarekin. Elkarteak lau ildo nagusi jarraitu izan ditu sorreratik, euskara eta euskal kulturaren egoera normalizatzeko bere ahaleginean. Lehenengo, proiektu komunikatiboa; *Berriketan* hilabetekariaren 250 zenbaki baino gehiago (1.400 ale) argitaratu ditu elkarteak, eta sare sozialetan edo Zuhatzaren YouTube kanalean ere egunetik egunera presentzia handiagoa du.

Bigarren, **euskalgintza** izenpean hainbat ekintza antolatzen ditu urte guztian zehar: Mintzalaguna, lehiaketak, aisialdia Zuhatza Kolore Anitzen eskutik eta abar.

Hirugarren, **kulturgintzan**, Euskal Jaiaren antolaketan elkarlanean hartzen du parte, eta hura iragartzeko kartel lehiaketa ere antolatzen du, baita hitzaldi, ikastaro, ipuin kontaketa, eta heldu eta haurrentzako ekitaldiak ere.

Azkenik, laugarren, **herrigintzan**, parte hartze aktiboa du



-Debako **euskalgintza laguntzea** eta proiektuaren parte izatea.

-*Berriketan* aldizkaria etxean jasotzea hilabetero, baita formatu digitaletan ere.

-Elkartearen **Batzar Orokorrean parte hartzeko aukera**.

-**Prezio bereziak** Zuhatza elkarteak antolatzen dituen egitasmo, produktu eta emanaldietan.

-Zuhatzak antolatutako askotariko **zozketetan parte hartzeko aukera**.

-**Lehentasuna** kopuru mugatuko jardueretan edota elkartearen lan-deialdietan.

euskara eta euskal kultura ardatz duten herri-ekimenetan (Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Euskaraldia, Kultur Mahaia, Korrika, Kultura eta Euskara eta Hezkuntza batzordeak...).

Erronkei erantzuteko babes bila

Baina bereziki aurrera begira jarrita sortutako erronkak izan dira Zuhatzak bazkide kanpaina abiatzeko arrazoi. Eta horiek hiru multzotan banatu dituzte Zuhatzakoek: batetik, orain arteko bidea sendotzen jarraitu nahi dute, bestetik kaleko presentzia handitu eta, azkenik, beren jarduera gaurkotu IKTak baliatuta.

Bazkide kanpainaren nondik norakoak

Irailaren bukaeran hasi eta abenduan amaituko da bazkide kanpaina. Hilabete horietako bakoitzean ekitaldi bat antolatuko du elkarteak betiere herritarrei euskal kulturaren fruituak gerturatzeko eta, horrela, euskal komunitatea sendotuz joateko. Irailaren 26an **Boteprontuan** euskararen aldeko kultur jaialdi herrikoiarekin eman zioten hasiera kanpainari. Jaialdi horretan herriko hainbat sortzailek hartu zuen parte diziplina desberdinetan. Dantza, musika, bertsoak eta kontakizunak uztartu zituen jaialdiak; Gure Kai E.D.T. eta Kalez Kale Txistulari Taldea, Jokin Lasa, Manex Astigarraga eta Antton Aizpurua, Julia Nijs eta Talka Bertso Talde Akustikoa aritu ziren oholztan. “Kanpoan euria eta hotz egiten bazuen ere, distantziak distantzia beroa eta hurbila izan zen giroa Aldats pilotalekuan”, nabarmendu digu Itziar Arana elkarteko lehendakariak.

Urriaren 29an, **Laburbira** film laburren zirkuituko emanaldi bat izango da Kultur Elkartean. Azaroaren 26an, berriz, Jesus Mari Makazaga euskaltzain urgazleak **hitzaldia** eskainiko du. Eta azkenik, abenduan, Zuhatzak Mendata Institutuarekin elkarlanean antolatutako **literatur lehiaketako** sariak banatuko dituzte Euskararen Egunaren inguruan.

Autofinantzaketaren bidea

Kanpaina abian jarri aurretik Zuhatzak beste bide batzuk ere jorratu zituen aurtengo egoera bereziak ekarritako diru-galerei aurre egiteko. “Euskararen aldeko lema-lehiaketa bat antolatu genuen udan eta *Ni nora euskara hara* lema irabazlea erabilita materiala atera genuen, kamiseta eta poltsak; oraindik azken aleak salgai ditugu Zuhatzaren lokalean”, azaldu digu Aranak.



ZUHATZAKIDE
IZAN NAHI DUT

Zuhatzak euskara elkarte
Muz deba

- Izen-abizenak:
- Helbidea:
- E-maila:
- NAN zkia.
- Jaiotze-data:
- Kontu korrontea (IBANa barne):
- Herria:
- Telefonoa:
- Lanbidea:

| Urte guztiko bazkidetza 30 euroren truke |

Bazkide izateko, zure datuak bete eta utzi Zuhatzak elkartearen bulegoan (*Ifar kalea, 12 behe*) edo bidali zuhatzak2@gmail.com helbidera. | **Harremanetarako:** 943 19 13 83 / 632 04 33 22

MARIA AIZPURUA AYASTUY

“Komunikazioa kalitatezkoa izan balitz, errazagoa izango litzateke Itziarko Toki Entitate Txikiaren auzian adostasun batera iristea”

Aurten bukatu ditu Maria Aizpuruak Kazetaritza ikasketak Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan eta graduondokoa eta bestelako ikastaro batzuk egiteko asmotan dabil orain. Erronka horiei heldu aurretik, dena den, gradu amaierako lana egin behar izan du 22 urteko gazteak, eta Itziarko Toki Entitate Txikiaren (TET) sorkuntza eta haren eboluzioa hartu ditu ikerketa gai. Egin berri duen “gertuko analisi” hori hizpide hartuta aritu gara berarekin *Berriketan*.



Zergatik hautatu duzu Itziarko Toki Entitate Txikiaren gaia gradu amaierako lana egiteko? Gatazkatsua, zalantzarik gabe...

Gai gatazkatsuren bat landu nahi nuela banekien, eta zergatik ez herrian betidanik pil-pilean egon den gaia? Interes handia nuen itziartarren eta debarren ikuspuntua ulertzeko, baina gehienbat herritar batzuen elkarrenganako gutxiespen hori nondik zetorren ikusteko. Gero, gaian barneratzen nindoala, ohartu nintzen nire ikuspuntua ez zela zuzena eta gaia are interesgarriagoa iruditu zitzaidan orduan.

Hipotesi nagusi batekin abiatzen duzu lana. Zein da?

Nire hipotesi nagusia da gertuko agenteek (komunikabideek edo alderdi politikoek) Itziarko Toki Entitate Txikiaren sorkuntzan zuzeneko eragina izan dutela. Hipotesi hori hainbat galdera erretorikorekin lagundu dut: “Herriko alderdiek benetako interesa al dute bi lurralde hauen eboluzioan, edota gai honekiko duten posizioa *komodin* gisa erabiltzen dute herritarren botoa irabazteko? TET goxoki gisa erabili al dute lehenagoko segregazio saiakera ahazteko? Alderdi politikoek herritarrak oker informatzen al dituzte alderdi konkretu bat babestu dezaten? Desinformazio hori izan al da herritarrak banatu dituen?”.

Zer metodologia erabili duzu ikerketa egiteko?

Analisi kuantitatibo eta kualitatiboak uztartu ditut. Lehenik, segregazio saiakerari eta TETi buruzko dokumentu administratiboak aztertu nituen. Horrela, gaia bi bloketan banatu dut: lehena segregazioaren saiakera; bigarrena, TETen sorkuntza. Banaketa hori kontuan izanda, momentuko hedabideek emandako informazioa aztertu dut, gaia nola azaltzen zuten eta horrek herrian zuen efektua ikusteko.

Bestetik, aipatutako bi une horietan parte hartu duten protagonista garrantzitsuenak elkarrizketatu ditut: Debako Jesus M^a Agirrezabala (EA), Maider Zubikarai (Alternatiba Eraikitzen) eta Pedro Bengoetxea (Debarren Ahotsa) alkate ohiak, Iñigo Cambroner (EAJ/PNV) zinegotzia, Gilen Garcia (EH Bildu) alkatea gaur egun, Arantza Egaña Itziarko auzo alkatea gaur egun, Andoni Aranberri (Itziar Herria Sortzen) Debako zinegotzi ohiak, Iñaki Egaña, gatazka gertutik bizi izan duen Itziarko herritarra, eta Patxi Aizpitarte Itziar eta Debako apaiza.

Azkenik, 410 herritarrek erantzundako inkestaren analisi kualitatibo eta kuantitatiboa egin dut, TETi buruz duten informazioa zenbatekoa den ikusi eta bizilagunek gaiarekiko duten iritzia kontuan izateko.

Zer nolako eragina izan dute hedabideek? Deba aldizkariak eta *Berriketan*-ek auziari emandako tratamendua edo jarraipena aztertu duzu, adibidez.

Alderdi politikoek eta hedabideek eragin handia dute herritarren iritzian. Batetik, gaia lantzen zuten hedabide jeneralistak aztertu ditut (*El Diario Vasco*, *Deia*, *Egin*...)

eta haien ildo editorialak argitaratutako informazioan eragina duela esan genezake. Bestetik, herriko aldizkariak kontuan izanda, *Berriketan*-ek *Deba* aldizkariak baino askoz ere informazio gehiago kaleratu du. *Deba* aldizkaria aztertzeko orduan erreportaje luze bakarra aurkitu dut, eta Debarren Ahotsa-ren iritzieren ingurukoa izan da (Gora *Deba*-ko kide batek egindakoa). *Berriketan*-i dagokionez, aldiz, berri eta artikulu desberdin asko argitaratu ditu, alderdi desberdinek elkarri bidalitako gutunez gain. Mezu horietan alderdien arteko tentsioa nabarmentzen da, baina aldizkaria bera ez da politikoki posizionatu.

Zer sentsazio gelditu zaizu TETen auzian parte-hartze zuzena izan duten bederatzi herritarrek elkarrizketatu ondoren?

Lehenik, eskerrak eman nahi dizkiet nire galderak arazorik gabe erantzuteagatik; haien ekarpenek asko lagundu didate. Bestalde, bakoitzaren ikuspuntua eta beraien alderdi politikoei defendatzen dutena ulertzen saiatu naiz eta inoiz baino argiago ikusi dut gaiarekiko duten iritzia. Ikusi dudana arazoa da legealdi bakoitzean momentuko alderdiak bere ideia politikoa lehenetsi dituela. Ondorioz, kasu batzuetan, herritarren beharrak bigarren tokian geratu dira, eta TETen prozesuaren eboluzioak etenak izan ditu. Alderdien arteko komunikazioa eta haiek herritarrekin dutena kalitatekoa izan balitz, errazagoa izango litzateke adostasun batera iristea.

Zer diozu alderdi politikoei?

Haiek egindako politikek oso zail jarri diote TETi aurrera egitea, gehienbat hainbat alderdik gatazkari buruz emandako informazioa ez delako gardena izan eta nire ustez horrek herritarren artean gaizki-ulertuak sortu dituelako. Herritarren eta alderdi politikoen arteko komunikazioa ez denez nahikoa izan, nire iritziz, herritar askok ez dute ulertu zer den TET. Alderdi batzuek lurraldetasunean oinarritu dute beraien borroka baina, segregazioaren saiakera atzean utzita, TETen helburua euren eremuan eskumenak kudeatzea da; horrela, zuzenagoa da harremana auzo guztietako herritarrekin, gertukoagoa, eta horrek asko errazten du beraien nahiak entzun eta asetzea.

Inkesta bat ere egin diezu Deba eta Itziarke biztanleei eta 410 lagunek hartu dute parte berorretan. Zer galdetu diezu?

Hori izan da zatirik gustukoenetako bat. Hainbat galdera planteatu nituen: zer ezagutza zuten gaiari buruz, itziarrek eta debarrek ezaugarri desberdin nabarmenak al zituzten, gutxiespen sentimendurik ote zegoen beraien artean, gustatuko litzaien Itziarrek bere autogobernua aurrera egitea, horrek Debari kalterik egingo liokeen, legediak utziko balu Itziarrek segregatzeko eskubiderik izango lukeen, gai honek Euskal Herria eta Kataluniako egoerekin antzekotasunik ba ote duen... Azkenik, galdera ireki bat egin nien alkatetza alderdi politikoz aldatzen zen bakoitzean TET kuestionatzea eta horrek aldatetako izatea zer iruditzen zitzaien jakiteko.

Jasotako erantzunak harritu al zaituzte? Zer nabarmenduko zenuke haietatik ateratako ondorioetatik?

Dezente harritu naute, bai. Alderdi politikoei hitz egin ondoren eta udal gobernuan egon den alternantzia politikoa ikusita (Alternatiba Eraikitzen alkatetza egonda Debarren Ahotsak hauteskundeak irabaztea eta jarraian EH Bilduk), herritarrek guztiz banatuta egongo zirela uste nuen. Argi dago iritzi desberdin asko daudela herritarren artean, baina gehienek libreki esan dute Itziarke TETen funtzionamenduari ados daudela eta ez dutela arazorik itziararren eboluzio eta hobekuntzekin, guztiz kontrakoa. Konturatu dira ez zela hainbesteko, duela urte batzuk iragarri zitzaien "mamu" haren itzala desagertzen joan dela. Herritar gehienak oso "humanizatuta" ikusi ditut itziararren egoerarekin. Nahiz

eta, beti bezala, ikuspuntu guztietako iritzia egon, positiboki harritu naute herritar gehienek iritziak eta debar eta itziarrek hain "urruti" edo banatuta ez daudela ikusteak.

Aspalditik bizitako gatazka honek herritarrek gure artean askotan banatu gaitu, baina poliki-poliki denon artean sortutako zauriak sendatzen ari gara eta normaltasunerantz goaz. Herritarren eta alderdi politikoen arteko komunikazioa ezinbestekoa da gatazka ulertu eta bakean bukatzeko.

Orokorrean, aurreikusitako bidetik etorri al dira ikerketaren emaitzak?

Bai, nire ustez, hasierako hipotesia betetzen dela ziurtatzen da. Ondorio nagusia, esan bezala, bai hedabideek eta bai alderdi politikoei herritarrek TETi buruz duten iritzian eragina dutela da. Argi dago karguan alderdi politiko desberdinak egon direnean desinformazio handia egon dela. Inkestan garbi ikusten da herritarren iritzia, eta gaia poliki-poliki argitu den heinean, TET martxan jarri denean, gehiengo handi batek (debarren % 71 eta itziararren % 88) legediak ahalbidetuko balu, Itziarrek segregatzeko eskubidea izango lukeela esan du. Hori horrela, deigarria da berez hainbeste herritarrek Itziarke TET babesten duela ikusita, Debarren Ahotsak 2015eko hauteskundeak irabazi izana, haien funtsezko ideia TET mugatzea baitzen. Hor ikusenez zenbatekoa zen garai hartako desinformazioa, jarraian, 2019ko hauteskundeetan, gai honetan guztiz kontrakoa iritzia duen alderdi batek lortu baitzuen alkatetza, EH Bilduk.

Urte batzuk pasa dira TET martxan dela. Nola ikusten duzu egungo egoera?

Alderdi arteko hitzarmena sinatzeko zain daude gaur egun eta horrek oinarriak gero eta finkatuago daudela esan nahi du; beraz, orain da momentua TETek bere bidea jarraitzeko. Herriko alkatetza alderdi politikoen aldaketa egon izan den bakoitzean Itziar izan da egunerokotasunean aldatetako sufritu dituen, txandakatzeko horrek ez baitio aurrera egiten utzi. Ondorioz, alderdi guztiek behingoz Itziar

eta Debarren eskumenak onartuz gero, bakoitzak bere bidea egiteko momentua izango da.

Eta zer aurreikuspen etorkizunera begira?

Etorkizun ona ikusten diot Entitate Txikiari. Azkenean lortu dute beraien beharrak nola hala asetzen dituen oinarriak finkatzea. Naturalki eboluzionatzen jarraitzea bakarrik falta zaio. Debari dagokionez, TETek kalterik egiten ez diola argi ikusi ondoren, bere bidean eboluzionatzen jarraitzeko momentua da. Ordua da bai Deba eta bai Itziarrek aldi berean aurrera egin eta beren fruitu propioak ateratzeko; paraleloan jarraitu behar dute bidea. Ez dugu zertan bestea zapaldu eta ginetik pasa. Elkarrekiko harreman positiboan, bakoitzak bere bidea jarraitzea da biok aberasteko modu bakarra.

Zurea da azken hitza, Maria...

Ez da erraza hain lan konplexu eta luzea laburbiltzea, baina espero dut ondo ulertu izana. Dena dela, interesatuz gero, eskuragarri dago nire gradu amaierako lana edonork irakur dezan.



Sinadura-bilketa abiatu du guraso talde batek ikastetxeei haur eta gazteen “osasun integrala bermatzea” eskatzeko

COVID-19aren ondorioz Debako ikastetxeetan dagoen funtzionamenduari konforme ez eta idatzi bat sortu du guraso talde batek; sinadurak biltzen ari dira euren eskaerak kontuan har daitezen

Ikasturte berria abiatzeko ataritan egindako bileretan jakin dute herriko gurasoek pandemia garaian beren seme-alabek zein baldintzatan egon beharko duten ikasgelan, eta hainbati kezka sortu dio ikasle eta irakasleek bizi beharreko errealitateak: ikasgeletan iazko ikasle kopuru bera mantentzeak, hainbat orduz gelditu eta maskara jantzita egon beharrak eta abar.

Hori horrela, guraso talde bat bestelako eszenatoki orokor bat marrazten hasi da, ezarritako arauaz gain zenbait adituren gomendioak ere aintzat hartuta. Giro horretan abiarazi dute sinadura-bilketa Debako Luzaro eta Mendata ikastetxeetan “haur eta nerabeen osasun integrala bermatzeko neurriak” bultzatzeko. Idatzian honakoak eskatzen dituzte: bizikidetzat talde egonkorak, aire zabaleko jardueretan maskara kendu ahal izatea (segurtasuna bermatuz), kanpo espazioak erabiltzea, mugimendua murrizteko jardunaldi trinkoa (jangela zerbitzua eta egungo ikastetxeko sarrera-irteera ordutegia errespetatuz) eta gelako ratioa jaitea (gehienez hamabost ikasle gelako).

Orain arte emandako pausoak bide onetik doaz taldearentzat, ikastetxeek beren proposamenak entzuteko prest daudela adierazi diete eta guraso elkarteekin ere harreman estuan



dabilta. Pozik daude orain arte jasotako iritzia eta ekarpenekin, babes hori “oso garrantzitsutzat” baitute Hezkuntza Sailera baliabideak eskatzeko. Hori dela eta, indarrak batzen jarraitzeko, herritar guztiak animatu nahi dituzte sinadura ematera helbide honetan: <https://labur.eus/Xuv4Q>.

“Elkarlanean, ahalik eta eskolarik osasuntsuena, psikologikoki eta fisikoki, sortzen saiatuko gara”



AINARA ARANBERRI da sinadura-bilketak oinarri duen idatziaren sustatzaile nagusia. 42 urte ditu eta Psikologiako irakasle da egun EHUn, baita hiru seme-alabaren ama ere. Berarengana jo dugu xehetasun gehiagoren eske.

Zein izan da sinadura-bilketa hau abian jartzeko arrazoia?

Nafarroan aldaketa nabariak iragarri zituzten: jardunaldi trinkoa, ratioa jaitsi, Lehen Hezkuntzako 5. mailara arte maskara ez zen uneoro derrigorrezko... Eusko Jaurlaritzatik, berriz, informazio gutxi zeto-

ren. 1000 bat langileren kontratazioa aurreikusten zuten, zehaztu gabe. Nola zitekeen gizartearen muin den hezkuntza sistemak ez izatea ezer antolatuta? Ikastetxe bakoitza bere esparruan gauzak antolatzen joateko gomendia eman zuten, baina baliabiderik eza hor zegoen... Debako ikastetxeetan araudia nola garatuko zen jakin nuen orduan, eta pentsatu “baina ez al da inor jabetu egoera honek emozionalki ikasleak desorekatuko dituela? Hezkuntza sistemak ez al daki oraindik estresak ikasketaprozesua guztiz kaltetzen duela?”. Zientziak frogatuta dauka hori.

Eta nondik edo nola abiatu zenuen bidea?

Soluzio bila, Oiongo ikastetxeko erreportaje bat irakurri, bertara deitu eta gauzak beste era batera egin zitezkeela ikusi nuen, eta Debako bi ikastetxeekin jarri nintzen harremanetan. Segidan, indarrak batzeko lanean hasi nintzen: inguruan nire

kezka berbera zuten gurasoak bazeudela ohartu, sinadura-bilketarena proposatu eta elkarrekin jarraitu genuen bide honetan.

Aurrera begira zer asmo duzue?

Tinko utsiko diogu hartutako bideari. Bidelagun nahikotxo ditugu jada: Haurrak Ere Bai plataforma, hainbat kazetari eta era anonimoan ari diren herritarrak, besteak beste. Sinadura-bilketa bukatzean guraso elkarteekin eta bi ikastetxeekin harremanetan jarriko gara berriro. Eta elkarlanean, ahalik eta eskolarik osasuntsuena, psikologikoki eta fisikoki, sortzen saiatuko gara.

Haurrak Ere Bai taldeko kide zara...

Euskal Herri mailako familien sarea da, eta konfinamenduan sortu zen haurren egoerak kezkatuta. Orain, eskolara itzultzeko beste irizpide batzuk proposatzeaz gain, haur eta nerabeen ongizaterako oinarriko premiak errespetatzearen garrantziaz sentsibilizatzen dihardugu.

Mendata institutuak eta Zuhatza Euskara Elkarteak elkarlanean antolatutako ipuin lehiaketan saritutako lanetako bat duzue hemen. Lehen zikloko bigarren saria irabazi zuen ondorengo ipuinak. Irakurketa on!

GREZIAKO SEKRETUA

-Atenea! Esna zaude?
-Bihar egongo naiz esna.
-Ez esan tontakeriarik...
-Ba ez esan tontakeriarik zuk ere.
-Atenasera joateak oso gauza interesgarriak erakutsiko dizkizu.
-Ados...

Atenea neska panpoxa bat da, 12 urte ditu eta kriston burugogorra da. Bere ilea marroi samarra da eta azal zurixka eta begi urdinak ditu. Bere arropa estiloa *preppy* da, orain eramaten den moda. Beno, bere izenak greziar jainkosa bati egiten dio erreferentzia, baina Atenea ez da gerrako jainkosa, ez, hori Atenea Nikke da. Berak lasaitasunaren jainkosaren izena du. Greziako herri txiki batean bizi da, eta gaur oporretara doa.

-Ea ama, badakit zure gaztaroan igual ez zela zure "territoria markatzen", baina orain bai, eta hiru aste joaten banaiz, pikutara nire "erreputazioa". Entzun?

-Hamar minutu dituzu, ea egin mailetak orain edo hemen geratuko zara.

Bai... "ama bat pazientzia handikoa". Azkenean, nola ez, amari kasu egin zion.

-Eeei! Neska, bizirik zaude?

-Isildu... Gabon... Zer? Nola? Noiz? Non nago?

-Kaixo, ah eta hegazkinean zaude. Azafatak aurpegi nekatua zeukan, eta uniforme minigonadun batekin zihonan, morena samarra zen eta, ematen zuenez, Marcelina zuen izena.

-Aizu, jarri behingoz gerrikoa, mesedez -esan zuen Marcelinak.

-Bai, ipurterre -esan zuen Ateneak burlati aurpegiarekin.

Aten! Noiz erakutsi dizut nik horrela hitz egiten?! Barka ezazu Marcelina.

Atenea ez zen konturatu ama dena entzuten ari zela.

Ailegatu ziren behingoz. Ateneak oraindik begiak erdi itxita zituen eta belarriko mina zuen presioarengatik. Hotel ziztrin batean pasa zuten eguna eta, aspertuta zeudenez, amak turismoa egitera joatea proposatu zuen. Akropolisera joan ziren. Neskaxari arreta handia ematen zion toki horrek. Kariatideek gehien. Bat-batean, ahots bat entzun zuen:

-Kaixo, Atenea, zenbat denbora zu ikusi gabe!

-E... Ados... Zein zara?

-Ni? Dimitrios, zure betiko laguna, nire bihotzeko jainkosa -esan zion mutiko hark bere eskua musukatzen zuen bitartean. Mutiko hark ile horixka zeukan, begi berde handi-handiak eta tunika txuri bat, emakume gidak esan zuen bezala, "chitón" izenekoa.

-Je je je, ze arraroa... bai, ni Atenea naiz, baina ez naiz jainkosa bat, 12 urteko neska baizik.

Dimitriosek larritu aurpegia jarri zuen.

-Nire jainkosa ez esan hori... etorri Herodionera eta han hitz egingo dugu...

-Baina non daude nire gurasoak?

-E... zer?

Dimitriok ikusten zuenez Ateneak ez zuela ezer ulertzen, Herodionera eraman zuen.

-Bale, jakina, zu ez zara jainkosa, baina berdin-berdina zara zure chitónarekin... dena.

-Nik ez daramat chi... Ostras! Nola daukat hau soinean?

-Horrela iritsi zinen.

-A ze ustekabea! Eta turista guztiak? E... Bale, non daude Zeintzuk dira horiek?

-Herritarrak, sakrifizioak egitera



etorri dira.

-Nola joango naiz berriro nire mundura? -esan zuen Ateneak, izerdi-tantatxo bat jaisten zitzaion bitartean.

-Etorri!

Dimitriok tenplu batera eraman zuen. Paretetan marrazki arraro batzuk zeuden.

-Hau etorkizunaren tenplua da, hemen kondaira bat dago marraztuta, eta esaten du sakrifizioen zubitik pasatzean orainera eramaten zaituela. Inork ez zuen ulertzen.

-Ba goazen!

Iritsi ziren sakrifizioen zubira eta, pasatzean, BOM! erori zen zubia, eta ezkerretara Ceus eta Poseidon horrokan zebiltzan...

-A! Dimitrios, kontuz! -momentu batetik bestera Ateneak sumatu zuen begiak txuri jarri zitzaizkiola.

ημόνηειρήνηβρίσκειταιστηνΑθηνά.

Hau da: bake bakarra Atenean aurkitzen da.

-Hori Trap-en kanta berri bat da, maitea? -ama bere ondoan zegoen eta hegazkinean zeuden.

-Non gaude? Eta Dimitrios? Ama? Ez geunden Atenasen?

-Laztana, ez gara iritsi.

Egun horretan, Atenasen, Atenearen estatua bat aurkitu zuten eskuetan MP3 bat zuela.

Lide Lobete

INOIZ BAINO INDARTSUAGO!

Mendatako ikasleek ez dute aurrez aurreko klaserik jaso duela zazpi hilabetetik. Orain ikasleak bueltan daude, liburua zorroan eta musukoa ahoan.

2020, gatazken urtea, 2020 honetan zer ez da gertatu? Eta, hala ere, denari aurre egin diogu. Ba eskolara buelta ez zen gutxiago izango eta arau batzuk bete, Mendata ikastetxeko 227 ikasle eta 32 irakasleak, musukoarekin, distantzia mantenduz eta eskuak sarri-sarri garbituz, eskolara itzuli gara.

Klaseen hasierari dagokionez, DBH 1. eta 2. mailakoek irailaren 7an eduki zuten aurkezpena, COVID-19aren protokolo guztiak jarraituz. Oso urduri zeuden ikasle gehienak, baina batez ere lehenengo mailakoak. Hirugarren eta laugarren mailakoak, berriz, irailaren 16an hasi ginen. Goizeko 8:30ean aurkezpena izan genuen tutoreekin eta 9:25etik aurrera klase guztiak martxan jarri ziren. Hasiera arraro samarra iruditu zaigu. Musukoez, distantziaz eta eskuak bospasei aldiz gel hidroalkoholikoz garbitu behar izateaz gain, DBHko maila bakoitzak ikastetxean zehar marra bat jarraitu behar baitu besteekin ez gurutzatzeko, mahaia ere desinfektatu egin behar dira erabili aurretik eta ostean... Ikasturte hau ez da berdina izango, baina eutsi diezaiozun aurtengoari ere!

Inoiz ez gara horrelako egoera baten aurrean egon baina inoiz baino indartsuago itzuli gara, aurten 15 ikasle apuntatu baikara prentsa tailerrean: Ekaitz Aperribai, Xabi Arakistain, Adur Aramburu, Maren



Aramburu, Oier Becerra, Josu Corrius, Jon Etxeberria, Malen Formariz, Ainhoa Loidi, Enara Oruesagasti, Sara Osa, Julene Perez, Unai Portero, Maddi Txurruka eta Oinatz Urbietta. Eta nolatan horrenbeste interesatu? Gauza berriak probatu nahi genituenez, hau iruditu zitzaigun horretarako modurik egokiena. Gogotsu etorri gara gauza berriak ikasteko eta proposatzeko. Horretarako gaude gu, Debako herritar guztiak Mendatan gertatzen diren gauza guztiez informatzeko. Prentsa aurrera aterako dugu inoiz baino indartsuago!

Honekin agurtzen gara 3. DBHko ikasleak, agur bero bat eta hurrengo hilabetera arte!

Prentsa tailerra 2020-2021

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

laguntzailea:



babesleak:



NOLAKOA IZAN DA IKASTURTE HASIERA?

- 1.- Nolakoa izan da ikasturte hasiera? Kontatu labur-labur.
- 2.- Zer osasun-neurri bete behar dituzue? Zer iruditzen zaizkizu horiek? Neurri horiekin segurua iruditzen al zaizu ikastetxea?
- 3.- Zer moduz moldatzen zarete teknologia berriekin ikasgelan?
- 4.- Nolakoak dira jolas orduak?
- 5.- Aurten goizez bakarrik aritzen zarete. Zer moduz daramazue?
- 6.- Aipatu aurten ikasi duzun gauza berri bat.



Lander Albizu
12 urte, DBH 1. maila

- 1.- Oso ondo hasi da, baina musukoa sei orduz jantzita eramatea ez da oso eroso.
- 2.- Bi metroko tartea mantendu behar da, ezin da inor ukitu, ezin da ezer partekatu... Egoera honetarako ondo.
- 3.- Oso ondo.

- 4.- Oso aspergarriak, ezin delako ezer egin.
- 5.- Oso ondo, baina pasa den kurtsoarekin alderatuta oso goiz esnatu behar izaten naiz.
- 6.- Egoera berri honen aurka nola jokatu, pazientzia izaten eta beste hainbat gauza txiki, ezagutzen aurrera egitea ahalbidetzen dutenak.

- 1.- Arraroa.
- 2.- Beti musukoarekin ibili behar gara, bi metroko distantzia mantendu behar da mahai eta pertsonen artean, maila bakoitzak bere marra jarraitu behar du ikastetxera sartu eta irteteen... Apur bat bai.

- 3.- Pentsatzen nuena baino hobeto.
- 4.- Maila bakoitzak leku bat dauka eta ezin da ezer egin.
- 5.- Oso ondo.
- 6.- Ordenagailua hobeto erabiltzen.



Miren Sagarna
14 urte, DBH 3. maila




Beñat Aizpurua
12 urte, DBH 2. maila

- 1.- Ona, oraingoz ondo hasi dut ikasturtea.
- 2.- Musukoarekin egon behar gara denbora guztian eta bi metroko distantzia mantendu behar dugu. Ondo iruditzen zaizkit. Bai, segurua iruditzen zait ikastetxea, ondo zaintzen ditugulako arauak.
- 3.- Ondo, konfinamenduan egon ginenean ordena-

- gailuekin ibili ginelako.
- 4.- Oso aspergarriak, ezin direlako gauza asko egin.
- 5.- Ondo, lehenago iristen garelako etxera.
- 6.- Classroom hobeto erabiltzen, horri buruzko gauza berriak ikasten ari garelako.

- 1.- Oso ondo hasi da, baina arraro samarra izan da.
- 2.- Ikastetxera joan aurretik temperatura hartu, eskuak garbitu, musukoa denbora guztian jantzita izan... Ondo. Hori esaten badute, hala izango da.
- 3.- Ondo, iaz konfinamenduan hasi ginen erabiltzen.

- 4.- Motzak.
- 5.- Oso ondo. Arratsaldean denbora gehiago dugu gauzak egiteko.
- 6.- Momentuz gauza berririk ez, baina aurreko urteekin konparatuz ikasgai berriak ditugu.



June Muguruza
12 urte, DBH 1. maila



June Etxabe
14 urte,
DBH 3. maila

- 1.- Osasun-neurriak hartu behar ditugu kontuan eta zaila egiten zaigu egoera berri honi aurre egitea; gainerakoan, ikasturtea ondo hasi da.
- 2.- Bi metroko distantzia, musukoa, ezer ez partekatzea, ikaskideengana gehiegi ez hurbiltzea... Neurriekin seguruagoa da ikastetxea, baina edozein gelatan egon daiteke positiboren bat.
- 3.- Ondo moldatzen gara asko erabiltzen ditugulako eta konfinamenduan ere erabili genituelako.

- 4.- Aspergarriak izaten dira gehienetan: ezin dugu eskolako materialarekin jolastu, musukoarekin egon behar gara, bi metroko distantziarekin, etab.
- 5.- Nahiago dut goizez bakarrik aritzea eskolan; horrela, arratsaldeetan denbora gehiago izaten dugu lanak egiteko edo zerbait baldin badaukagu garaiz iristeko.
- 6.- Gmailari buruz gehiago ikasi dugu eta liburu digitalak erabiltzen ere ikasi dugu.

URRIAK 29, OSTEGUNA

-18:30. **Laburbira** euskarazko film laburren zirkuitua eta Amaia San Sebastian zuzendariekin solasaldia, Kultur Elkartean.

URRIAK 30, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, plazan.

URRIAK 31, LARUNBATA

-16:30. **VIII. Manuel Mateos memoriala,** Deba Xtreme kirol taldeak antolatuta. Luzera: 8,4 km.

-18:00. **Hitzaldia:** "Gaueko sorginak: Armada Gorriko emakumeen borroka", Josetxo Otegiren eskutik, Debako Gaztetxean.

-23:00. **Kontzertu akustikoa,** Debako Gaztetxean.

AZAROAK 1, IGANDEA

-18:00. **Ipuin kontaketak** LH 2-6 bitarteko

haurrentzat, Agirre Jauregian.

-18:30. **Organo kontzertua:** Esteban Elizondo, Santa Maria elizan.

AZAROAK 8, IGANDEA

-**Paleo-koben mendi martxa askea** (Deba-Itziar), Debako Foruen plazatik abiatuta. "Cromagnon ibilbidea" (24 km) eta "Praileaitz ibilbidea" (14 km).

AZAROAK 13, OSTIRALA

-17:00-20:30. **Odol-ematea,** Luzaro eskolan.

AZAROAK 20, OSTIRALA

-18:00. **Hitzaldia:** "Bielorrusia bidegurutzean", Asier Blasen eskutik, Kultur Elkartean (Debako Gazte Asanblada).

AZAROAK 21, LARUNBATA

-12:00. "**Deba-Itziarko landatutako bioaniztasuna**" ikerlanaren aurkezpena, Kultur Elkartean (Euskal Herriko Hazien Sarea).

Lehiaketa

-Abian da gazteei zuzendutako ikus-entzunezko **Beldur Barik** lehiaketa. Emakumeek jasaten dituzten bereizkeria-egoerei aurre egiten dieten adierazpen mota guztiak onartu, baloratu eta bultzatzea du helburu. 12-26 urte bitartekoek har dezakete parte. Azaroaren 5a baino lehen aurkeztu behar dira lanak. Informazioa: www.beldurbarik.eus.

Beka-deialdia

-XV. **Tene Mujika** beka sortu dute Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak. 6.000 euroko diru-laguntza emango diote irabazleari. Abenduaren 9an amaitzen da proiektuak aurkezteko epea. Informazio gehiagorako: www.deba.eus ataria.

Mailegu zerbitzua udal liburutegian

-Ostolaza udal liburutegian eskatutako liburuak, pelikulak... jasotzeko ordutegia ondorengoa da: astelehen eta ostegunetan: 8:30-13:30 eta 17:00-19:00 / asteartean, asteazken eta ostiraletan: 8:30-14:30.

"Defendatzaileak" erakusketa

-El Salvador, Honduras, Guatemala eta Chiapasen lurraldearen eta giza eskubideen defentsaren aldeko borrokan emakumearen papera aldarrikatzen duen erakusketa, udaletxeko aretoan. Azaroaren 2tik 9ra (18:00-21:00), asteburuan goizez (12:00-14:00) eta igande arratsaldean itxita.

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **azaroak 6, 7, 8.**

Burgoa Zuazo: **urriak 23, 24, 25. azaroak 20, 21, 22.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: azaroak 7 eta 14

BURGOA ZUAZO: urriak 24 eta 31 / azaroak 21 eta 28

9:30 - 13:00

G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatz

943 191 383

berriketan@zuhatza.com

Uzuri
optika audio

www.uzurioptika.com

RPS: 183/12

**ZURE ENTZUMENA
ZAINTZEN**



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

LIZ.-ZK.: 3

TaxiAlain Deba

WiFi

www.taxideba.eus

636 135 008
alain@taxideba.eus

MARIJE CASTRO IRIBAREN



- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

Masajista

28 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615

DEBA

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behe - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

A D

ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Empresa Registrada Nº 2 / 05 / 049
NIVEL 2

ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxes: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com


ieraenea
ekodenda

"maite ditut nire/gure bastorrak"

Lersundi Kalea 6- 20820 DEBA
Telf:943 55 95 20- E-mail ieraenea@gmail.com

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



k

kutxabank

sasoiiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknika (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

ITXAS GAIN

Taberna

ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte gutxian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

IGARZA

TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



Laburbira



GAU BELTZA
Euskaltzaleen Topagunea



URAK DAKARRENA
Marilyn taldea



ANTI
Josu Martinez



TIGRE BAT
Amaia San Sebastian



PIL PIL
Kristina Zorita



MAMARRO
Ibon Iza Totorika



KATEAK
Yolanda Mazkieran



JAUZI BAT ETA PRIXT
Maitane Eyheramonho



HARRIA HERRIA
Dimegaz Kultur Elkarte

Euskarazko film laburren
XVII. zirkuitua - 2020

DEBA

Urriak 29, osteguna
18:30 | Kultur Elkarte

AMAIA SAN SEBASTIAN
Zuzendariarekin solasaldia



euskara
elkartea



 mintzalaguna
ELKARREKIN
euskara bizi, erabili

IZEN EMATEA:
labur.eus/Zuhatzza_Deba
Zuhatzaren lokalean | 943 19 13 83

